XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5430

AGINDUA, 2012ko azaroaren 5ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko izaera pertsonaleko datu-fitxategiak arautzeko dena.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluak xedatzen du administrazio publikoetako fitxategiak sortzea, aldatzea edo deuseztatzea Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokorraren bidez baizik ezin daitekeela egin, eta artikulu horrek, aurrekoa garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Dekretuaren 54. artikuluarekin batera xedapen horren oinarrizkoa edukia ezartzen du.

Titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datu fitxategien eta datuak babesteko euskal agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikuluaren bidez, Datuak Babesteko Erregistroa sortzen da, eta, bertan ezartzen duenez, lege horren aplikazio-eremuaren barnean dauden fitxategiak erregistro horretan inskribatuko dira.

Eusko Legebiltzarra eratzeko 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Agentziari (DBEE) jakinaraziko diote izaera pertsonaleko datuen fitxategien sortze, aldatze edo deuseztatze oro, datuok Datuen Babeserako Erregistroan inskriba daitezen; hori DBEEko zuzendariaren 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez onartutako eredu arautuan emandako xedapena edo erabakia helaraziz egingo da (2005eko abuztuaren 31ko EHAA, 31. zk.).

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko izaera pertsonaleko datu-fitxategiak ezagutaraztea errazten eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuen segurtasuna antolatzen duen Eusko Jaurlaritzaren 2002ko uztailaren 16ko Erabakira egokitzeko, izaera pertsonaleko datuen fitxategi guztiak biltzen dira agindu honetan; gainera, agindu honek izaera pertsonaleko datu-fitxategiak arautzen dituzten aurreko xedapen arautzaileak indargabetu egiten ditu, ezabatu egiten ditu orain arteko fitxategiak eta txertatu egiten ditu orain arteko xedapenek araututako fitxategiak, legezko xedapenek edo denboraren joanak gomendagarri egiten dituzten aldaketak eta egokitzapenak sartuz. Beraz, fitxategiak hainbat xedapenetan ez sakabanatzeko, eta herritarren argitasun eta segurtasun juridikoaren mesedetan, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko datu pertsonalen fitxategi guztiak zerrendatu dira xedapen honen I. eranskinean. Eranskin horretan, gainera, aurreko xedapenetan azaltzen ez ziren fitxategi berri batzuk ere sartu dira.

Beraz, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean xedatutakoa betetzeko, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzea da.

2.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluaren eta berau garatzeko araudiaren arabera, agindu honen I. eranskinean hauek adieraziko dira zehazki horiei buruz: fitxategiak edo tratamenduak identifikatzea –izenak aipatuz–; beren helburuen eta aurreikusitako erabileren deskribapena; datuen jatorria –zein kolektiboren datu pertsonalak bildu nahi diren adieraziz–; fitxategien oinarrizko egitura, zehazki deskribatuz identifikazio-datuak, eta, hala behar bada, bereziki babestutako datuak, eta bertan barne hartutako izaera pertsonaleko datuen gainerako kategorienak; eta horiek antolatzeko erabilitako tratamendu-sistemak; aurreikusitako datu-komunikazioak; datuen nazioarteko transferentziak; fitxategien organo arduradunak; sartzeko, eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak zein zerbitzu edo unitateren aurrean erabil daitezkeen; eta indarreko legeriaren arabera eska daitekeen segurtasun-maila (oinarrizkoa, ertaina eta handia).

2. artikulua.– Fitxategiak sortzea eta ezabatzea.

Hurrenez hurren, agindu honen I. eta II. eranskinetan zerrendatzen diren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzen eta ezabatzen dira.

3. artikulua.– Datuak lagatzea.

1.– Agindu honen I. eranskinean aurreikusitako datu-lagapenari kalterik egin gabe, fitxategietako datuak laga ahal izango dira, Administrazioaren esparruan, lege-ordenamenduak agintzen dituen funtzioak betetzeko, baldin bada eta eskumen eta gai berei buruzkoak badira.

2.– Halaber, fitxategi horietako datuak EAEko Administrazio Publikoko eta beste administrazio publikoetako estatistika-organo eta -zerbitzuei utzi ahal izango zaizkie, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistika-Funtzio Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean xedatutakoaren babesean.

3.– Era berean, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluaren arabera, izaera pertsonaleko datuak Herriaren Defendatzaileari, Fiskaltzari edo epaileei edo epaitegiei edo Kontuen Auzitegiari laga ahal izango zaizkie, beren egitekoak burutuz.

5. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategi bakoitzaren ardura duten organoen titularrek behar diren neurriak hartuko dituzte, fitxategi horiek euren xederako erabiliko direla eta datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo datuetan sartzea saihesteko. Gainera, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean eta berau garatzeko arauetan aitortutako bermeak, betebeharrak eta eskubideak eraginkor egiteko neurriak hartuko dituzte.

6. artikulua.– Datuen tratamendurako zerbitzuak ematea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren izenean dihardutela, izaera pertsonaleko datuen tratamenduko zerbitzuak betetzen dituztenek, tratamenduaren erantzulearen jarraibideak errespetatuta bete beharko dituzte beren zereginak, eta hala jasota geratuko da helburu horretarako egiten den kontratuan; ezingo dituzte, beraz, beste helbururen baterako aplikatu edo erabili, edo beste pertsona batzuei komunikatu, ezta datuen kontserbaziorako bada ere, betiere, aipatutako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 12. artikuluan xedatzen denaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta gelditu dira bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, izaera pertsonaleko datuen

fitxategiak arautzeko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2004ko ekainaren 10eko Agindua (2004ko uztailaren 16ko EHAA, 135. zk.).

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen bidez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak jakinarazten dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, zein fitxategi berri sortu den –I. eranskinean jasoak–, eta zein ezabatzen –II. fitxategian zerrendatuak–, horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskriba ditzan, horretarako ezarritako prozeduraren bidez.

Bigarrena.– Lege hau sartuko da indarrean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 5a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

I. ERANSKINA

FITXATEGIAK SORTZEA

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi hauek sortzen dira:

1. fitxategia. Espediente Juridikoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: saileko espediente juridikoak kudeatzea, kontrolatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: Espediente juridikoekin zerikusia duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatuak, beste administrazio publiko batzuk.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisioa elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, helbidea (elektronikoa), telefonoa, NAN, sinadura.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sarrerak, errentak.

Arau-hausteei buruzko datuak: administrazioko arau-hausteak eta zehapenak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: maila ertaina.

2. fitxategia. Zehapenak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: sailaren eskumenekoak diren arloetako administrazioko arau-hausteak eta zehapenak kudeatzea, kontrolatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: gisa batean edo bestean, Sailaren eskumenekoak diren arau-hausteekin eta zehapenekin zerikusia duten pertsonak

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, erakunde pribatuak, beste administrazio publiko batzuk.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: Izen-abizenak, helbidea (elektronikoa), telefonoa, NAN, sinadura.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Arau-hausteei buruzko datuak: administrazioko arau-hausteak eta zehapenak.

Bereziki babestutako bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: goi-maila.

3. fitxategia. Industria-instalazioen segurtasuna.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: industria-segurtasunaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: instalazioen jabeak eta teknikariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

4. fitxategia. Enpresen eta industria-instalazioen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: enpresen kudeaketa eta akreditatutako teknikariak.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: akreditatutako enpresen gain dauden industria teknikariak eta pertsonala.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua, nominako datu ez-ekonomikoak.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sarrerak/errentak. Nominako datu ekonomikoak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

5. fitxategia. Kontrol metrologikoa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: legezko metrologia betez, kudeaketa neurtzeko tresnak.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: neurtzeko tresnen titularrak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua, beste administrazioak.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: Izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, bestelakoak: matrikula.

Inguruabar sozialei buruzko datuak: jabetza eta ondasunak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

e) Datuak lagatzea.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

6. fitxategia. Ibilgailu historikoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: historiko gisa katalogatutako ibilgailuak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: ibilgailu historikoen titularrak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, beste administrazioak.

Nondik jaso diren: datuen transmisio elektronikoa.

Biltzeko euskarria: informatikoa eta bide telematikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea), telefonoa.

Inguruabar sozialei buruzko datuak: jabetza eta ondasunak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

7. fitxategia. Instalazio erradioaktiboak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: instalazioak eta erradioaktiboaren arloko akreditatutako teknikariak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: erradioaktiboaren arloan akreditatutako enpresen gain dauden industria teknikari kualifikatuak eta pertsonala.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua, beste administrazioak.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta -lekua, sexua, familiako datuak, nazionalitatea.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

8. fitxategia. Industria-segurtasuneko istripuak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: industria-instalazioetan istripuak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: gisa batean edo bestean ezbeharrarekin zerikusia duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua, beste administrazio publikoak.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura, GS-ko zk.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta -lekua, sexua, familiako datuak, nazionalitatea.

Bereziki babestutako bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria eta Energia Sailburuordetzaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: goi-maila.

9. fitxategia. Merkataritzako laguntzak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: merkataritza-arloko laguntzak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: laguntzak eskatzen dituzten enpresen gain dauden pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna, erakunde pribatuak, beste administrazio publiko batzuk.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta -lekua, sexua, familiako datuak, nazionalitatea.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak, lanbide-esperientzia.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sorospenak, irabaziak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Merkataritzako zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza.

Merkataritza zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

10. fitxategia. Merkataritzako bekak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: merkataritzako bekak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: merkataritzako bekadunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua, beste administrazio publikoak.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta –lekua, sexua, familiako datuak, nazionalitatea.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak, lanbide-esperientzia.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sorospenak, irabaziak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren Merkataritzako zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza.

Merkataritzako zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

11. fitxategia. Industria garatzeko laguntzak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: teknologia-arloko laguntzak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: teknologia-arloko laguntzen eskatzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: beste administrazio publikoak.

Nondik jaso diren: datuen transmisio elektronikoa.

Biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria eta Energia Sailburuordetzako Industria garatzeko zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Industria Garapeneko zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

12. fitxategia. Instalazioak eta akreditazioak kudeatzea Energia.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: industria-segurtasunaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: instalazioen jabeak eta teknikariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta –lekua, sexua, familia-datuak, nazionalitatea.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua, nominako datu ez-ekonomikoak.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sarrerak/errentak. Nominako datu ekonomikoak.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria eta Energia Sailburuordetzako Energia eta Meategien zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Energia eta Meategien zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

13. fitxategia. Energiako laguntzak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: energiaren arloko laguntzak kudeatzea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: energiaren arloko laguntzen eskatzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta -lekua, sexua, familia-datuak, nazionalitatea.

Datu akademikoak eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Merkataritza arloko datuak: jarduerak eta negozioak.

Enpleguari buruzko xehetasunak: lanpostua.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sorospenak, irabaziak.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria eta Energia Sailburuordetzako Energia eta Meategien zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Energia eta Meategien zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: oinarrizko maila.

14. fitxategia. Energia-istripuak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: energia-instalazioetan istripuak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: gisa batean edo bestean ezbeharrarekin zerikusia duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua, beste administrazio publiko batzuk.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

Datuak biltzeko euskarria: paperezko euskarria, informatikoa eta bide telematikoak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio datuak: Izen-abizenak, NAN, helbidea (posta-helbidea, elektronikoa), telefonoa, sinadura, GS-ko zk.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotze-eguna eta -lekua, sexua, familia-datuak, nazionalitatea.

Bereziki babestutako bestelako datuak: osasuna.

e) Datu-lagapenak: ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren erantzukizuna duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria eta Energia Sailburuordetzako Energia eta Meategien zuzendaria.

g) Datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko zerbitzu honetara jo:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila.

Industria eta Energia Sailburuordetza.

Energia eta Meategien zuzendaria.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

h) Segurtasun-neurrien maila: goi-maila.

15. fitxategia. Meategiko jardunak kudeatzea.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak: meategiak kudeatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Eraginpeko pertsonak edo kolektiboak: meategiekin zerikusia duten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna bera, erakunde pribatua.

Nondik jaso diren: formularioak edo kupoiak, datuen transmisio elektronikoa.

